

Bilboko abra inguruko itsas eta portu-hiriaren luzapenak

Ibaiaren ertzetako metropoliaz bizpahiru zertzelada



Laburpena: Bilboko ibaiaren ahoko Abra ureztatuan populazioaren metaketa kausitu da, zeinu/izaera kontrakoak ziren jendarteak estalduraz dentso bihurtu duten hiri-bilbean. Ezker-eskuin ertzetan gaude, hiribildu zaharren gain-bitarteetan garatutako metropoli/suburbian.

Hitz-gakoak: Abra, Bilbo (hiria), itsasadarra, metropoli-espazioa, suburbia.

Abstract: At the mouth of the estuary of Bilbao or «Abra de Bilbao», a striking layer of population is installed which configures an urban texture or fabric with a density and accumulation of human collectives of sign and contradictory character. We are on the banks, left bank and right, in the suburb of a metropolis formed between the interstices of the old villas.

Key words: Abra-river, Bilbao (city), metropolitan-space, estuary, suburb.

Isusko Vivas Ziarrusta
UPV/EHUko irakaslea eta UEUko kidea

Juan Antonio Rubio-Ardanaz
Antropologoa eta Extremadurako Uni-
bertsitateko irakaslea

Amaia Lekerikabeaskoa Gaztañaga
UPV/EHUko irakaslea eta eskulturgilea

Bidaltze data: 2016-09-01

Onartze data: 2017-01-31



«Espazio batek eta hura partekatzen duten pertsonen oroitzapen, bizipen eta pertzepzioen pilaketek osatzen dute tokiaren memoria edo memoria kolektibo espaziala [toki-lekuaren «memoria-estratu bat]. Belaunaldiz belaunaldi memoria estratu boriek hirian metatuz doaz, beren izaera itxuratuz. Soilik elementu geografikoak (ibaia, mendiak...) dira finkoak hiri batean. Gainontzekoa gizakiak eraiki edo eraitsi dezake, memoria kolektibo espazialean eraginez. Bestalde, pertsonen hiriak eratzen dituzten modu berean, jakina da hiriek pertsonen bizimoduak moldatzen dituztela eta arkitektura, edo hirigintza, giza paisaia eraikitzen duen tresna kultural gisa (Ayán, 2003) deskriba genezake».

(Trigueros et al., 2014: 22, 25)


Aurre-ondorioen hurbilpen-gogoetak; hitzen semantika anizkoitza eta aurre-iritziak

Sarri askotan izendatzeko gai garen edozein kontzeptuk irudi edota imajina bat gorderik eduki dezake giblean. «Atzean» egote hori ez baita zentzu topologikoan, denboran baino. Atzetik dagoela beraz, «aurretik» esan nahiko du kasu honetan; kontzeptua agertu «baino lehen» eta haren «iragan» denborazkoan. Aitzitik, euskarazko esamolde ezagunak izena duen oro badela diosku, eta hemen, halako erlazioa kontrakoa edo alderantzizkoa dela ematen du; «izena» existitzeak «izana»ren nolabaiteko «fedea» ziurtatuko edo egiazko bilakatuko balu legez, nahiz eta «aitzineko» irudirik (imajinarik) ez izan, uler dezakegun modurik kontzienteenean bederen.

Aurreneko paragrafo honetatik, alegia, «suburbia» hitzak (terminoak) bere kometa-estela luzean aska ditzakeen irudimenezko imajina mordoaz hausnar dezakegu. Hala

nola burmuineko burutazio tirabiratsu horietatik aurreneko iritzi eta usterik ondoriozta daiteke, «suburbia» delakoaren harian. Baliteke zenbait testuingurutan periferiak, ingurumari «suburbanoak», zona «periurbanoak» eta hiri barrieatuak berak adiera sinonimoak izatea. Hirigintzan, paisaiaren arkitekturan, lurraldearen antolaketa zein kudeaketan eta batik bat geografia urbanoaren esparruetan dihardutenek aldaerak eta desberdintasunak txukun azalduko dizkigute, jakintzaren beste eremuetan izan dezaketan isla nahiz oihartzunari tentuz adituz eta kontu eginez.

Hirietako periferiek (benetan «hiria» kontsideratzen dugunaren «marjinetako» bazter horiek) irudi mental konkretuak sorrarazi dituzte; batez ere anabasa urbanistikoari atxikiak eta maiz «degradazioari» lotuak; «degradazio» hori, hain justu ere, zertan datzan erabat definitzeko: fisikoa, «komunitate-moralarena», pobrezia eta txirotasunak eragindakoa, delinkuentzia, gizarte-klaseen erpin okertuak, zorigabetasuna, zikinkeria eta bestelako makina bat «keria» bata besteari gainjarriak eta horrela metatuak. Alabaina, periferia diogunean, hirigunearen aldameneko auzuneak burura dakartzagunez, frantsesezko «banlieu» hitzak adibidez Pariseko etxadi handiak edo Brasiliako «superetxadiak» gogorarazten dizkigu estreinakoz — Gasteizekoak gutxiago, nola ez—, eta «suburbia» agian gure irudimeneko «logela-hiriak», «lorategi-hiriak», etxebizitzan barruti homogeenoa isolatuak, pelikuletako kolonia-irla «ideologiko» eta «erlijioso hezitua», jende jakin batentzako neurrian neurriko habia pilaketak eta abarrak. «Suburbia» ingurumari «suburbanoa» ere izan daiteke, metropoli petoa baino zertxobait haratagokoa, «koroa metropolitarraren» zirkuluetan datzana. Zirkulu horietatik aldenduenak



1. irudia ~ Madrileko autobide «erradialen» plano-eskemak.
Iturria ~ Internet sarean (lizentzia askea).



2. irudia ~ Hegan goazela harturiko «suburbiako» argazkiak.
Iturria ~ Isusko Vivas (2016).

beharbada eremu «periurbanoak» lirateke, hiri puztuak lurraldearekin lausotzeko joera duten muga zabalak, funtzio mistodun espazio mamituak; «ikus-zarata» edonon, hiriek zorua zinez «jaten» duten zerbitzuak lurraldera «jarturiki» izatearen patua tokatu zaien aldiriak. Eszenografiaren «katzealde funtzionalak», hutsalaren narrazioz eta «operazio dialektiko sinplez» «ezaugarri negatibo eta generikotasun globalarekin lotzen dituzten ideiak» (Uriarte, 2013a: 32); «tarteko» arrapostuak beharko lituzkeelarik¹. Gaur eguneko aditu askok batzuetan «metropoli-eskualde» nozioa darabilte, haren anbiguotasunagatik gustuko ez duguna, nahiz eta besteek, teorikoki konprenigarriagoak izanagatik, anbiguotasuna beren hiri-bihotzean eta lurralde-gorputzean daramaten.

Bertzenaz, «suburbia» izan daiteke, baita ere, zoritxarrez azken boladan horren herrikoiaik baizen irrigarriak baina arriskutsuak bihurtu diren eta espekulazio urbanistikoaz aberasten diren pertsonaien akzio-guneak, krisialdi sendoaren gar gordinez bere horretan abandonatuak izan direnak: «mamutzar-hiriak» eta etxalde hutsak. «Suburbioak» badira, edo izan daitezke, lurraldeko zauri antropikoz eginiko eta gero ustez jositako errepide-sareek elkarrekin lotzen dituzten aipatu habitatzeko «ez-leku» (Augé) «neotertziario» horiek; lo egiteko, erosketak egiteko (izan ere, erosketak eginez dibertitzeko) eta batzuetan lan egiteko egokitu direnak; azken horiek beharbada parke teknologikoei eta balio erantsidun enpresa «hiper-

teknologiko» berritzaileei eskainiak (beste izen-aldaerekin). Kasuak askotarikoak izan daitezke, eta horietatik guztietatik Madrileko autobide erradial horiek ekar daitezke adimenera, (arduraz entzungo genuen Madriletik «zerura» ere bagoazela) azken hamarkadetan burutuak eta nahi baino trafiko askozaz gutxiago bideratzen dutenak (ordainsariak bitarteko, etab.). Puntu aldenduak konektatzeko ahal bezain lerrokadura zuzenenak, horrek huste-lanak, zulaketak, betetzeak eta ohi denez, ondorengoko disimuluak badakartza ere. Kasik hiri barrokoaren zantzuak birgogorarazten dizkigute; hastapeneko kometa-buztanaren zipritzina beharrea armiarma potoloaren edota olagarroaren hanka «erradialak», buru-eragile batetik hasiz aldirietara hedatzen direnak, teorikoki 360°-ko angeluak harrapatuz lehenbiziko direktzioak fintzen doazelarik zentrotik urrundu ahala. Halako ikuskizunak, nola ez, sateliteen grabazioetan atzeman daitezke, ortoargazkietan eta aeroplanozko hegaldietan.

Kakotx artean «barroko» usaindun hiri postmoderno gaurkotuan, aldiz, sektore horien gezi-puntetan «bentosa» erako orban urbanoak aurkituko ditugu: «suburbioak», landa-eremuko egokitzapen «sasi-urbanoak», geografok «rururbano» kategoriaz ezagutzen duten lurralde hiritartuaren baitan; Euskal Herriko hainbat bazterretan dugun kaltearen antzeko zoriaz. Bertan konmutaziozko elementuak bizi dira; hirian lan eta «suburbian» deskantsatu egiten dutenak, isiltasun-bake erosoan. Bidenabar, «suburbia» era konkretuak Le Corbusier-ek asmatu zuen 3 milioi biztanlerentzako (azken zeroa jartzean erratuko ote zen susmatzen dugu) hiri arrazionalista, funtzionalista eta bestelako utopia anitzen tankerakoak ere izan daitezke, eta guregandik urrerago, Bilboko metropoliko Ibaizabal Nerbioi

1 «Errealitate periferikoen bestelako irudikapen batek zenbait onura ekarriko lituzkeelakoan gaude; esaterako, estigmatizatuak diren eremuen irudiaren, eta, oro har, haiekiko existitzen diren aurreiritzen aldaketa bat eta, bestetik, hiri-paisaia arketipikoari kontrajarria dagoenaren onarpena» (Uriarte, 2012: 46).

bailararen pareko Txori Herri haranean 1940ko hamarraldi autarkikoan eta beranduago 1960ko hamarkadaren hastapenean ere kokatu nahi izan zuten: *Ciudad Nacional Sindicalista* hiri berri «alternatibo eta arranditsuaren» itxurakoak.

Baina «suburbia» delakoaren ideia-irudiari gainjartzen dizkiogun esanahi eta «jantzi» horietatik zeintzuk dira gurean aurkitu eta identifika ditzakegunak?

Itasadarreko «paradisú-paisaiako» fenomenoetako so; «sub-urbis» ala soilik «urbis»?

Honaino idatzitakoaz atera daitekeen inpresioa da «suburbian» ez dela giro: urbanizazio zalantzarriak hantzen, errentagarritasun basatiko espekulazioa nonahi; hiri-ehunaren iruleek etengabe jardun dutela, betiko bilbearen geruza zakarrezko galbahetik iragazten. Orotara eta pertzepziorik arruntenean, emango lezake garapena alderantziz proportzionala izan zitekeela, aldrebesa; hau da, degradaziora doazen hiri-puskak edo hiri-atalak onuragarriagoa izan daiteken egoerarantz baino. Aitzitik, bada beste konturik ere Bilboko Abra inguruko espazio heterogeneoetan.

Gurera ekarriz, estuario txiki edo, asko jota, ertain horretan XIX. mendeko hirugarren herenetik XX. mendeko laugarren laurdenera, Euskal Herrian ez ezik Espainiako Estatuan eta Europan ere izan diren lehengai eta transformaziozko produkzioaren nukleorik behinenetakoak bildu dira, baita gizarteko kontraktotasunik nabarienenak ere. Burdinaren ustiapenak eta industria-iraultza lokalizatuak hiriaren (*urbis*) forma eta, are gehiago, «sub-urbiarena» zedarritu dute ehun bat urte eskaseko denbora-tartean eta gizaldi horretako belaunaldien joan-jinean.

Industriaren gorabeherak gorabehera, gainean daukagun XXI. mende honetako leku hauek aspaldiko antolakuntza sozioekonomikoaren fruitu helduak dira. Testigantza horri gure garaian dakusagunak eusten dio. Begirada azkar baten ildoan, Bilboko erdigunea izan daiteke Alde Zaharra eta huraxe besarkatzen duten lehen luzapenak, Abandoko zabalgunea barne eta haren ostekoak. CBD edo buru estrategiko gorenaren teoria klasikoetan. Hortik aurrera, orotariko etorrera-sinergiekin «periferia hurbila» edo frantsesentzat «*la proche banlieue*» gisa ezagutzen ditugun auzoak sortuko ziren batez ere XX. mendeko inputsoarekin. Bilboko antinklinal eta sinklinal aldeetakoak eta horietako mendi-magal ugarietan edota gertu: Altamira, Masustegi, Rekaldeberri, Iralabarri, San Inazio, Santutxu, Txurdinaga, «Otxarkoagako Poblazio Zuzendua», etab. Horiek guztiak eta beste hainbeste eraiki aitzin gure kontzepzioan, seguruenik, Begoña edo Deustua bezalako elizateak garai bateko «suburbioak» izan zitezkeen. Gerora hiriko gorpuzkiak kateatuz joango ziren ibaian gora (Etxebarri, Arrigorriaga, Basauri, Galdakao) eta intentsitate handiz ibaian behera (Bilboko metropolia legez ezagutzen dugun 14 kilometroko luzeran aurkitzen ditugun udalerririk, antzina jada kanalizazioz zuzenduriko itasadarraren meandro edo bihurtzeetan). Konfigurazio longitudinal hori gizakiak medioarekin historia luzean izan duen harreman produktibo, ekonomiko, sinboliko eta estetikoak gauzatu du eta egitura zentruakide ideetatik (eta beharbada

ohikoagoetatik) aldentzen da nabarmen. Goikoari jarraikiz «*la banlieue éloignée*» («periferia urruna») izendatuko luketen horretan, ostera, Bilboko hiribilduaz batera edo lehenago jaiotako asentamenduak genituzke: aipagarriena Portugaleta, baina baita maila murriztagoak ere, ibaiaren bi ertzetan. Nekazaritzari bezainbat itsastar bizitzari eta portuari eskerrak, ondoren garatutako komertzioak eta beranduagoako industrializazio-prozesu boteretsuak bizigune horien tarteko espazioak sano okupatuko zituzten, ur-lerro egitura-emaile horren aldameneko paisaiak eten bago desitxuratuz eta muzin egin.

Kuriosoa suertatzen bada ere, oraingo ikuskizuna tailu horren ondorio gaurkotua da. Bai ezkerreko «industrialduan» bai eskuinalde «burgesean», bertako «kultura-pilaketaren» arrastoak presente daukagu, «hiri bakoitza» eta hura habitatzen duen «klase bakoitza» bere baldintza, historia eta harrotasunarekin. Santurtzin baxurako arrantza oso mugatuaren azken apustuak aurki genitzake portuko kaietan, baina haren aurrekari sinbolikoak ere Mamariga auzo zahar eta berriak. Bitartean, bai Portugaleten bai Santurtzin bertan alde zahar eta erdiguneetako tradiziozko biztanleria zeinu desberdinetako beste batzuek eratuko lukete. Horietako baten batek «periferietara» begiratu eta «Moskuko auzoak» metaforaz interpreta dezake ikuskizun dentsoa; baita Sestaon, Barakaldon edo Zorrotzan ere. Baina «Moskuko auzo» horietako populazioak ere aldaketak jasan ditu, eta oraintsu arte klase beharginaren borroka, botere-hartze eta harrotasun kolektibo baten antzeko zer edo zer igar zitezkeen, sektore batzuetan behintzat. Beste alderdian, eskuinaldean burgesia industrialak bititokiak antolatu zituela jakin badakigu. Udakoak bezainbat «neguko hiriak» (Neguri) diseinatu eta altxatu zituzten euren moldeekin eta euren fabriketatik aurrez aurre, baina atmosfera arras garbiagoetan, bertan etengabe gelditzeko asmoz edo; halako hilezkortasun amestuan, gizarteko dirudun-aberatsak euren oskolean sartzen direnean bezalaxe.

Ohi denez, urteak iragan ahala kasik den-dena norabide berantiarrean erori da (arrazoiak arrazoi), beharbada super-portuko salbuespenarekin, eta kutsadura uretatik zein fabriketako tximinietatik gutxituz joan den heinean, lurrazalean kontzentratu dela dirudi («lindane» poltsak, zakarkeriak, etab.). Edozelan ere, espazio horiek bizi izan ditugunontzat kearekiko irudimen «erromantikoak» badirauela gogora genezake. Berau, hautsa bezala badakigu inbaditzailea dena, «edozein txokotan azaltzen dela eta hura garbitzeko saiakerak lekualdatze bat baino ez direla». Hortik haren izaera «higuingarria» ondoriozta badaiteke ere, «konnotazioa bestelakoa da eta memoriarekin, oroimenarekin duen lotura gailentzen da» (Uriarte, 2012: 47). Horrekin batera genituzke, irudimenezko horretan inprimaturiko «presentzia materialagoa duten hautsak, putzuak, lokatza eta *debrisa* [zabor-hondakina]» (Uriarte, 2012: 46) eta delako nahasmenean «jende oldeak» egituraturiko bititza-formak, inguru-ulermenaren lekuko.

Bitartean, horren guztiaren «aurpegi-garbitzarako» Abrako «erakustoki jasagarriak» hezurmamitu zaizkigu. Portugaleteko barra ekiditeko burdinazko moila luzea burura etorri zaien moduan berrituz dute, orain igandegaietako pasealekua dena. «Exurbietako» parkeez aparte ere



adibidez Zierbenan («periurbia» litzateke?), lehenagoko arrantzale herrixka azpiratzen duen lantegi erraldoiaren ondoan «hondartza artifiziala» egin diete, baldin horrela dei badaiteke. Noski, bertatik ibiliz kutsakortasunaren abisuzko kartelak eta galazotako aktibitateak erruz aurkituko ditugu. Kontrako muturrean kiroleko eta jostaldirako ontzitxo ez aparte Klub Nautikoa eta antzeko elkarten presentziak jarraitzen du, eta Begoñako Punta deritzon kontradiketan aisialdirako ostalaritza-gunea ireki dute, bertako galeria modernistekin zer egiten duten erabaki arte. Hemen eta nonahi, «espektakuluaren gizarteak paisaia banalak eta kontsumoko espazioak sortzen ditu [zeren eta] esperientzia izan aurretik jada digerituak diren tokiak nekez sortzen dute emoziorik bertaratzean» (Uriarte, 2013b: 8). Algortako portu zaharreko labirinto-espazioak ere bazkari-afaritarako primerako aukerak eskaintzen ditu eta Areeta zein Neguri tarteko moiletatik bidegorriez gain bertako jauregitxoen istoriotxoak eta jabe ziren handiki sendienak azaltzen dituzten panel-serieak ipini dituzte, espazio horien identitatearen oroigarri bikainak.

Halaber, oraingo gizataldeak beste batzuk dira eta horrekin batera jendartearen gurariak, interesak, kideetasunak eta mespretxuak ere bestelakoak. Batzuentzat «paradisu galdua» eta besteentzat birjaiotako txokoa, mila aldiz aldarrikatua izan den Euskal Herriko kostaldeko sistemaren «zilbor-hestea» (ez hainbeste paisaia preziatuaren erakargarritasunagatik, baizik bere garrantziagatik). Gehiago sakontzeko betarik ez dugunez, deskribatu ditugunak pentsaera klasikoan «suburbioak» liriateke. Edonola ere, bigarren mailako nukleoetatik horren intrintsekoki konfiguratutako hiria, konpaktua, atxikimenduz baino gehiago konurbaziozko aglomerazioz eraturia, komunikaziorako³ erraztasunak dituen, zaila egiten zaigu «suburbia» balitz bezala defendatzea, «urbia»ren parean. Begibistakoak diren lurralde-elementuen pilaketatik paisaiaren «ulerkera sortzaile»aren formulazio bat egin daiteke, hura kudeatzeko edo berreraikitzeke ez bada ere «crono-topos»

2 Handik hur burdina-mendiak, altzairu goriak argitutako Bizkai ezegunena-
ren sabel emankorrean.

3 Bilboko metropolian agertu diren garraio-azpiegiturei buruz eta horien
kamuflaje «berdea»ren teknikei buruz besteen artean, Maider Uriartek (Aldiri,
12: 10-13) jardun zuen, aurreko lan baten aipatu genuenez.

3. irudia ~ Bilboko Abra Galea lurmuturretik ikuskatua (egun argiz).

4. irudia ~ Bilboko Abra Galea lurmuturretik ikuskatua (iluntzean).

5. irudia ~ Santurtziko Mamariga arrantzaleen herrixkako aztarnak.

6. irudia ~ Portugaleteko herri-erdigunea ur-bazterrean, eraikin historiko
batzuekin.

7. irudia ~ Portugaleteko burdinazko moilaren profil beltzak udako arratsaldez,
eguzkia hodeiertzaz jabetzean portu handiko garabiekin batera.

8. irudia - Zierbenako fabrikatzarrak portuxoa jaten du, bertako «hondartza artifizial» inozoarekin.

9. irudia - Algortako faroa eta Nautikoaren inguruko itsas bazterreko paisaian sekulako eragina duten kirol eta aisiarako ekipamenduak.

10. irudia - Punta de Begoña alderantz abiatzen diren lurra mantentzeko murrak eta galeriak. Gainean, hirigintza fenomeno ikusgarria: jauregiak, gaztelutxoak... batzuk auzokideen etxebizitza bilakatuak.

11. irudia - HAlgortako portu zaharra eta marinelen etxeak maldetan gora.

Egilea - Isusko Vivas (2010-2016).

delakoaren joerak (batzuetan immaterialak) ukigarri/ukiezin nahiz ikuskor/ikusezin diren jarrera interpretatzaileak azaleratzeko tresna teoriko metodologikoen bidez, Mainer Uriartek defendatzen zuenez (2015), tradiziozko analisi-prozedurak osatuko lituzketenak. Hiri-metropoliko enklabe zehatzetatik osotasun-ideia eskuratuz goazela.

Hauxe litzateke hitz gutxitan Bilboko estuarioko Abrak erakusten digun estampa mugikorra, ez itxia ezta geldia ere. Ibai-arro horretako azken itsasoratze hiritartua ezingo genuke toki-leku «ez-zentral» edo «eszentriko» gisakoa kontsideratu, Abrako bizitokiak praktikan behintzat hiri-marjinakoak ez direnez. Tradizioz eta memoriaz ulertzen dugun «postala», ondare kultural, sozial, ekonomiko, produktibo eta arkitektonikoa duena, estetikoa barne. Ur-lamina horretako potentzialak eta izan duen indarraren transformazio energetikoak esplotaziorik gabeko «terra nullius» batetik aldenduko gintuzke, ur-bazter hiritartuaren argazkia irmoa baina ez, aldiz, «hiri-bazterra»⁴.

Espazio soziokultural baten pertzepzioa; tokian tokiko lekukotasunaren sena

Hiriko, metropoliko eta metropoli-alboetako paisaiek toki-lekuen memoriak berpizten dizkigute; paisaia bera gizataldeek medioarekin elkarrekintzan eraikitako kontzeptua izaki. Modu batean zein bestean, egunero-egunero espazio konkretu batzuetan gertatzen da gure bizimodua, haietan edozein motatako aktibitate eta akzioak martxan jartzen ditugula. Leku-espazio horiek perspektiba antropologiko batetik kontsideratzen baditugu, berauek okupatzeko, maneiatzeko, gureganatzeko zein manipulatzeko dugun abilezian eta haiek habitatzearekin bat sorrarazten ditugun erlazioetan, esangurak, dinamikak, praktikak, oroitzapenak eta bizitza-estiloak desestaltiko ditugu. Den-denak mintzoko zaizkigu gure bizitza soziala arautzerakoan baimentzen diren kultur prozesuez. Zentzu horretan, gure toki-leku espazialak eraikiak izatetik aldenduago eraitsiak, berreraikiak, birmodelatuak, berreginak, birgaituak, transformatuak eta berriro urbanizatuak izaten dira, eta, azken finean, beti dute ezagutaraztea interesgarri den prozedura sozialetan zeresanik. Horietara urreratzeak edota belarria tente edukitzeak espazio horien eraikuntza (fiskoa eta soziala) gizartean esanguratsuak diren egitasmoen esleipenarekin lotzen duen dimentsio antropologikoari sarrera ematen dio, toki-leku/espazioen izaera soziokulturalari esker.

⁴ Zentroaren ez-tandaz «urban sprawl» gisara hedaturiko «ville éclatée», baina ez hainbeste «terrain vague».



Izaera horiek dira funtzionalki, formalki, kulturalki eta estetikoki konfiguratuak, gure begien erretinara heldu eta distira bereziaz agurtzen ditugunak. Toki-lekuok eta espaziook dinamika posibilista eta ez-determinista batekin ernaltzen dira, non eta nola, espazioen xehetasun batzuez kontzientzia hartzeak edota mantentzeak —komunitate-elkarrekintza bezalaxe— ez duen haiekin erlacionaturiko praktiken erreproduzioa seguruago egiten (Urrejola, 2005). Bide berean zorionekoa izango litzateke jakitea nork eragiten dituen espazio horietan baliostasun esplizitu eta dominaziozko ikusmoldeak, eta gizartean duen eraginkortasun zehatza. Horrelaxe, testuinguru postmodernoan barik «transmodernoan» kasurako «merkantzia-espazioarekin» topo egingo genuke, beronek duen menperatze-logikarekin. Hori balioztatua agertzen da «baldintza ekonomiko eta objektiboen pean, zerbait finitu, neurtu, fisiko eta unibertsal gisa, espazioaren beste erabilera eta funtzio batzuk ezkututzen dituztenak» (Urrejola, 2005: 6). Direlako alderdi objektibistek, batzuk baliagarriak izanik ere, ez digute ukatu behar gizartearen eginkizunak argitzera heltzea, oraingo honetan orokorrean «suburbian» eta bereziki Bilboko Abrako «ur-plazan» topa ditzakegunak, bertako biztanleen eta jende-aldra edo multzoaren pertzepzioetan barrena murgilduz.

Tarte kontzeptual horretan gerta daitezkeen ez-ulertzeak baliteke behin baino sarriagotan globalizazioaren munduzabaltasunean eguneroko ogia diren berreskurapen proiektu «neo-lineral» eta «neo-garatzaila»ek bizitza-estiloekin eta haien eboluzio geldoagoarekin duten kointzidentziarik ezean sostengatuak egotea. Hein batean kultur biltegi eta agian amildegi ere badiren espazio horiek ezin ditugu onartu akzio fisikoaren agertoki hutsalak balira bezala, baizik eta plataforma objektibo horiek gaudituz estandarrek eta estatikoak izan daitezkeen estetikei uko eginez, benetako harrobi kulturalaren ateetan «purra-purra» jotzen dugun bitartean; tokian tokiko gizon-emakumeen bizi-taupadak (oraingoak/lehenagokoak) ezagutu ahal izateko. Sintesi eran laburtuz, postura formalista petoa baztertzea legoke, haien pribilegiozko ohar-lekua Bilboko ibaiaren ahoko Abran duten espazio sinbolikoki ezin hobeak begiztatu eta ikertzeko gida-lerroen trazetan.

Prozesu soziokulturaletan arreta jartzeak tokien izaera propiora ailegatzea exijitzen digu, dimentsio fisikoetatik zertxobait harago ibiliz. Espazio horietan ezarri izan den populazioaren identitatezko erretorikak ulertzeko nahitaezkoa litzatekeen angelu zorrotz edo kamutsez. Hurrerapen honek pertsonalitatea giza paisaietan inskribatzen duten bizipen eta faktore humanoak ilunpetik argitara ekarriko lituzke, bertan itsatsiak dauden joan-etorri kultural bertokoeekin; zeinaren deskubrimenduak ezein esku-hartzerako gaituko gintuzkeen. Espazio horien sabelean eta burmuinean gizarteak eta kulturak plazaratzen dira protagonista ezberdinen bidez; konfigurazio espazialak estrukturatu dituzten katea trofiko historikoak. Horien etenak aurpegiz aurpegiko jarraipen harmonikoa erdibitzen edo jada ezabatzen du, iraunkortasunaren garantia kolokan dela.

Akabera. Excursus

Behinola Jorge Oteiza zenaren aipamen batek zioenez, hementxe bertan «ehorzten dena» heriotzari kale eginda hortxe nonbait «hasten» da segituan, berriro ere. Ez du, hortaz, honako hau bertan behera «ehortzi» nahi, ezen «has» dadin ahaleginak egingo baititugu, limite horretatik aurrerako ikergai burutsuagoa abiaraziz gara dadin hauspoa emanez; honakoa abiapuntu posible bezala zilegituz. Badakigu Bilboko metropoli luzangaren erraetatik hegazkinen aireratzea sarritan ikuskizun sentikor/kontraesankorra izaten dugula, Oteizarentzat arimak «jauzika/hegaka» bestaldera zeramatzen horiek.

///

Bibliografia

- Arnaiz, A. et al. (2008): *La colina vacía. Jorge Oteiza-Roberto Puig. Monumento a José Batlle y Ordóñez. 1956-1964*, ehu press (Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea), Bilbo.
- Augé, M. (1992/1994): *Non-lieux, introduction à une anthropologie de la Surmodernité*, Seuil, Paris.
- Bilbao, L. (2008): *El Poblado Dirigido de Otxarkoaga: Del Plan de Urgencia Social de Bizkaia al Primer Plan de Desarrollo Económico. La Vivienda en Bilbao (1959-1964)*, Bilboko Udala, Bilbo.
- Homobono, J.I. (2016): *Fiestas marítimas populares. Patrimonio inmaterial de la Ría de Bilbao, El Abra y la costa Occidental de Bizkaia*, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa (Maritimidades Bilduma, 3), Bilbo.
- Rodríguez, R.M. (1989): *La sonrisa de Saturno. Hacia una teoría transmoderna*, Anthropos, Bartzelona.
- Trigueros, E. et al. (2014). «Hiriaren kolektibotasun ukiezina: memoria espaziala eta tokiarekiko identifikazio-eskalak», *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 19, 22-23. Aipuren oinarritzko jatorria: Ayán, X. (d/g.): «Arquitectura como tecnología de la construcción de la realidad social», *Arqueología de la Arquitectura*, 2, 17-24.
- Uriarte, M. (2015): *Paisaia-ikuspegia eta bere lau dimentsioak: metodo interpretatzaile konstruktibista baten proposamena Bilboaldeko biri bazterreko paisaia menditsuen kasuan aplikatua* (doktorego-tesia), Arkitektura Saila, Donostiako Arkitektoen Goi Eskola Teknikoa, UPV/EHU., Donostia.
- _____, (2013a): «Aldiriek ez dute postalik», *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 14, 22-36.
- _____, (2013b): «Arkitektura, paisaia eta turismoa. Lanzarote eta Norvegiako turismo estrategien ereduak», *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 14, 8-10.
- _____, (2012): «Azpinatura. Gissen eta arkitekturaren ezohiko inguruneak», *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 12, 46-47.
- Urrejola, L. (2005): *Hacia un concepto de espacio en Antropología. Algunas consideraciones teórico-metodológicas para abordar su análisis*, Txileko Unibertsitatea, Txile.